

## Orozkoko Udalak Artiacheko langileen aldeko mozioa onartu du

---

Adieren abstentzioarekin eta EAJ eta EH Bilduren aldeko botoekin onartu da Artiach-eko langileek aurkeztutako mozioa.

Orozkoko udalbatzak hitzarmen duin baten negoziazioaren defentsan 80 egun baino gehiago greban daramaten Artiach-eko langileek aurkeztutako mozioa onartu du. Mozioa Artiacheko gehiengo sindikalak aurkeztu zuen urtarrilaren 24an, baina alkateak ez du udal osoko bilkurako gai-ordenean mozioa gehitzeko prestutasunik agertu. Horren ondorioz, EH Bilduko udal-taldeak modu urgentean sartu behar izan du otsaileko plenoan eztabaidatu eta onartu ahal izateko.

Orozkoko Udalak, Galletas Artiach-ek eta Adams Foods-ek eskubideak murrizteko eta soldata mailaketa bikoitzak sortzeko konbenioa negoziatzeko eragindako presiobideak arbuiatu eta enpresak berak egin asmo duenaren inguruko desadostasuna jakinarazteko, eta, era berean, mehatxuak amaitzea eta Orozkoko fabrikari beharrezkoak diren inbertsioak ez eginez arriskuan ez jartzea eskatzeko konpromisoa hartu du.

Adie taldeak testu itxia aurkeztu dela argudiatuta, abstenitu egin da eta ez du mozioa babestu. Aipatzekoa da greba hastean Artiacheko langileek Orozkoko Udalean ordezkaturik dauden hiru alderdi politikoekin bildu zirela eta mozio bat aurkezteko asmoaren berri eman zutela. Plenoaren egunera arte, Adiek ez du testu adostu bat adosteko proposamenik egin, beraz, mozioa ez babesteko arrazoi nahikorik eman ez dutela uste du EH Bilduk.

Azkenik, EH Bildu Orozkok bihar Artiach-eko eta Madres Mercedarias-eko langileek deitu dituzten mobilizazioetan parte-hartzeko deia egiten du.

